FUNTSEZKOBALIABIDEAK

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gogoratu:

- Funtsezko elementuak direla enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.
- Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira:
  - Baliabide fisikoak
  - Baliabide intelektualak
  - Giza baliabideak
  - Finantza-baliabideak

Ez ahaztu batzorde ebaluatzaileak baloratuko duena:

- Proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren zuen baliabide ukigarri eta ukiezinak (esperientzia, kontaktuak, abileziak…) zein diren xehatzea.

IOIKANen kasu praktikoa:

- Baliabide fisikoak: lanerako garajea, ordenagailua, telefonoa eta diseinuak egiteko materiala.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Ionen sormena, Ikerrek dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta Anek dauzkan salmentetarako eta antolaketarako abileziak.
- Finantza-baliabideak: beren aurrezkiak.



BULTZATZAILEA
BABESLEAK
ENPRESA AHOLKULARIAK
KOLABORATZAILEAK